

Opariak

Mirari Martiarena

Ordua aldatu zela astebete pasa arren, ez zara oraindik ohitu neguko ordutegira. Ordubete oparitu zizuten lo gehiago egin zenezan, baina betiko orduan jai-ki zinen. Zaharrek eta haurrek izaten omen dituzte ordutegi berrira egokitze-ko zailtasunak. Baina aspaldi utzi zenion ume izateari edo hori uste du- zu behintzat, eta ez, ez zara zaharra. Aldaketek hori dute, egokitu egin be- har duzula. Eta opariek ere horixe du-

te, leku egokia topatu behar diezula ez galtzeko.

Azken asteetan hitz politikak oparitu dizkizute. Goxotasuna ikusi omen dute zure begietan eta udazkenaren irribar-rea duzula esan dizute. Opari origina- lak maite dituzu, besteei egin zalea zara. Irribarre egiteko ispiluak, edo lerro arte- an irakurri beharreko ipuinak oparitu izan dituzu, baina zer gertatzen da zuri horrelakoak egiten dizkizutenean? Le- hen kolpean ukatu egiten dituzu, ez di-

tuzula merezi sinestarazi nahi izaten diozu zure buruari. Bigarren kolpean, al- boetara begiratzen duzu ea inguruan norbait dagoen ikusteko, eta, hirugarre- nean, zuretzat direla ohartzen zara. Ez duzu inoiz jakin opariak hartzen, badu- zu ikasteko ordua. Ohitu beharko zenu- ke, laster da-eta zure urtebetetze eguna.

Kostata bada ere, irribarretsu hartu dituzu azken opari horiek. Eta zin egin diozu zeure buruari neguan ere irribar- rea mantenduko duzula. •

Figuranteak

Koldo Sagasti

Pasa den asteazkenean 1976ko martxoaren 3ko Gasteizko sar- raskia pantaila handira era- mango duen pelikularen fil- maketan parte hartu nuen figurante lanetan.

Zorigaiztoko egun hartan Zaramaga auzoko karriketan gertatutako protes- taldiak eta polizia armatuarekiko tal- kak irudikatzeko ehunka antzezle bo- luntarioren kolaborazioa behar zuten, eta neuk ere bertan egon nahi izan nuen; ez aktore bokazio ezkuturik daukadalako, baizik eta filmarena eki-

men polita iruditu zitzaidalako geure herriaren oroimen historiko kolekti- boari eusteko. Berrogeita bi urte gero- ago nekez espero dezakegu espainiar epaitegietatik triskantza haren ingu- ruan justizia ezartzeko borondaterik; eta, gauzak horrela, testigantza zine- matografiko hau tributatu xume bat izan daiteke, justizia poetiko apur bat eskaintzeko egun kolokan ikusten di- tugun eskubide zibil eta politiko asko konkistatzeko borrokatu zirenei.

Grabaketaren eguna hunkigarria izan zen. Ehunka aktore boluntariok

berebiziko errealismoa eman zioten pasarte historiko haren antzezpenari. Eta hainbestekoa izan zen egoeraren errealismoa, non, filmaketa bukatuta- koan, bildutakook, teknikari taldekoen harri durarako, aho batez jarraitu ge- nuen oihuka: «Martxoak 3, ez dugu ahaztuko!».

Une batez, neuk ere sinetsi nuen handik abiatu, eta, beroaldiaren eragi- nez, bankuak erretzen has gintezkeela. Baina egungo borrokariok, antza, fi- guranteak baino ez gara, itxura hu- tsezkoak. •